



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

**Informe de Fiscalización
Fiskalizatze Txostena**

**Eusko Legebiltzarrerako
Hauteskundeak 1994
Hautes-kontabilitatea**

**Elecciones al Parlamento
Vasco 1994
Contabilidad Electoral**

Vitoria-Gasteiz, 1995eko martxoak 14
Vitoria-Gasteiz, a 14 de marzo de 1995



AURKIBIDEA/ÍNDICE

1. SARRERA	3
1.1 LANAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA	3
1.2 EZARGARRIA DEN ARAUDIA	4
2. ONDORIOAK	5
2.1 IRITZIA	5
2.2 HAUTESKUNDE KONTUAK	5
• EUZKO ALDERDI JELTZALEA	5
• EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA	6
• HERRI BATASUNA	7
• PARTIDU POPULARRA	8
• EUSKO ALKARTASUNA	8
• EZKER BATUA	9
• UNIDAD ALAVESA	10
2.3 ZURITUTAKO GASTUAK ETA DIRULAGUNTZEN KALKULUA	11
2.4 GOMENDIOAK	12
• EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO LEGEAN KONTROL-PROZEDURA	12
• BESTELAKO GOMENDIOAK	13
ERASKINA	14
Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legean kontrol-prozedura aldatzeko proposamena	14
1. INTRODUCCIÓN	16
1.1 OBJETIVOS Y ALCANCE DEL TRABAJO	16
1.2 NORMATIVA APLICABLE	17
2. CONCLUSIONES	18
2.1 OPINIÓN	18
2.2 CUENTAS ELECTORALES	18
• EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO	18
• PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI-EUSKADIKO EZKERRA	19
• HERRI BATASUNA	20
• PARTIDO POPULAR	21



• EUSKO ALKARTASUNA	21
• IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA	22
• UNIDAD ALAVESA	23
2.3 GASTOS JUSTIFICADOS Y CÁLCULO DE LAS SUBVENCIONES	24
2.4 RECOMENDACIONES	25
• EL PROCEDIMIENTO DE CONTROL EN LA LEY DE ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO	25
• OTRAS RECOMENDACIONES	26

ANEXO

Propuesta de modificación del procedimiento de control en la Ley de Elecciones al Parlamento Vasco	27
---	----



1. SARRERA

1.1 LANAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legearen (ELHL) 150.1 artikuluan erabakitakoaren arabera, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) 1994ko urriaren 23ko hauteskundeetan legebiltzar-aulkia eskuratu duten edota hauteskunde dirulaguntzen aurrerakinak eskatu zituzten hautagai-taldeen kontabilitatearen gaineko fiskalizatze-lana mamitu du.

Fiskalizatze-lana ezargarria den arauditik eratorritako ondoko atalok bete izana egiaztatzen mugatu da:

1.-ELHLren 140. artikulua hautes-sarrera eta gastuen kontabilitate xehekatua aurkezteko moduz finkatzen dituen baldintzak betetzea.

2.-Hauteskundeetarako deia egiten den egunetik hautetsiak izendatzen diren arte egindako hautes-gastuak ezezik, gastu horien izaera eta ELHLren 146. artikulua agintzen duen sailkapenarekiko kidetasuna.

3.-ELHLren 147. artikulua finkatutako mugei gaina hartu gabe gastuak egin izana, Euskal Autonomi Elkartearen hiru hauteskunde-barrutien multzoan aurkeztutako hautagai-zerrendentzat 154.603.279 pezetako kopurua finkatu delarik. (Barne Sailburuaren 1994ko irailaren 6ko Agindua).

4.-Kontularitza, merkataritza eta fiskalaritzazko printzipio eta arauak finkatzen dituzten gutxiengo baldintzak bilduko dituzten agiri bitartez egindako gastuak zuzitzea.

5.-Diru ezarketa egiten denean norbanakoaren izen-abizen, helbide eta estatuko nortasun agiriaren edota pasaportearen zenbakia adieraztea (ELHLren 143.1 artikulua) eta ekarpen horien gehiengo muga gorde izana, 1.231.000 pezetan jarria dagoena (ELHLren 145.4 artikulua).

6.-Hauteskunde prozesuari aurre egiteko alderdi politikoek ekarritako diru-baliabideetan jatorrizko banku-kontuaren identifikazioa. (ELHLren 143.3 artikulua).

7.-Segidan zehaztutako tokietatik eratorritako diru-fondoak hartzeko debekua: zeinahi administrazio edota erakunde publiko, autonomiadun erakunde, estatu izaeradun entitatetatik; jabegotza Estatuari, autonomi-elkarreari, probintzia edota udalerriari dagokien herri-alorreko enpresetatik; eta ekonomia mistoa duten enpresetatik ezezik, indarreko kontratu bitartez



herri-administrazioetakoren batentzat zerbitzuak bete edota hornidura nahiz lanak egiten dituzten enpresetatik. (ELHLren 145.1 artikulua).

8.-Atzerriko diren edota bizitokia Autonomi Elkartetik kanpora duten erakunde nahiz atzerritarrengandik edota legez kontrako ihardueretatik eratorritako dirufondoak hartzeko debekua (ELHLren 145.2 eta 3 artikulua).

9.-Hautes-Batzordearekin loturik irekitako edo gaitutako banku-kontuak hautesgaiek diruak biltzeko eta hautes-gastuak ordaintzeko erabiliak izan direla egiaztatu, ELHLren 141 eta 142.1 eta 2 artikuluek agintzen dituzten berezitasunak beteaz.

10.-Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkariak atera dituzten hautagai-taldeein emandako hauteskunde-dirulaguntzetako aurrerakinen gehiengo muga bete izana, hautesgai-zerrenda horrek berak hauteskunde horietan jasotako dirulaguntzaren % 30ean finkatua. (ELHLren 144. artikulua).

1.2 EZARGARRIA DEN ARAUDIA

- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legea.
- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei ezargarrria zaien Hautes-Araudiaren garapenari buruzko 250/1993 Dekretua.
- Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deialdia egiteko den 346/1994 Dekretua.
- ELHLn bildutako zenbatekoak eguneratzeari buruz, Ekonomia eta Ogasun Sailburuaren 1994/9/5eko Agindua.
- Eusko Legebiltzarrerako 1994ko hauteskundeetan hautes-gastuak mugatzeko finkatutako zenbatekoa zehazteaz, Barne Sailburuaren 1994/9/5eko Agindua.
- Urriaren 23an egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen botu-zenbaketa orokorrari dagozkion emaitzen argitalpena erabakitzen duen Autonomi Elkarteko Hautes-Batzordearen 1994/11/10eko Akordioa.



2. ONDORIOAK

2.1 IRITZIA

Lana gauzatzean segidan zehaztutako muga hauek izan ditugu:

- Alderdi politikoen kontabilitatearen gaineko fiskalizatze-lana ez dagokio HKEEri, Estatuko Kontuen Epaitegiari baizik. Honen ondorioz, HKEEk ez du aurkeztutako kontabilitateetan erregistratu gabeko hauteskunde-gastuen ahalezko izatea egiaztatu, ezta legezko debeku edo mugak gorde ez dituzten diru-sarrerak alderdi politikoen kontabilitatean zehar bideratu izan zitezkeen.
- ELHLren 142.3 artikulua hauteskunde gastu guztiak hauteskundeak igaro eta hurrengo 90 egunetan zehar ordaindu behar direla agintzen du. Kontabilitateak aurkezteko epea 60 egunekoa denez gero, HKEEk ez du ordainketa guztiak ondorengo 30 egunetan egin izanari buruzko informaziorik eskueran izan.

Epaitegi honen ustez, lana egiteko orduan izan diren oztupoetatik -aurreko bi lerroartean adierazi direnak- erator litezkeen ondorioak alde batera utzita, hautagai-taldeek aurkeztutako hauteskunde kontuek egoki erakusten dituzte hauteskunde kanpaina zehar egindako dirusarrera eta gastuak eta l. idazpuruan azaldutako ezargarri diren legezko erabakiak bete egin dira.

2.2 HAUTESKUNDE KONTUAK

Ondoren erakutsiko den hauteskunde-kontabilitateen transkribapena hautagai-taldeek aurkeztutako datuen bateraketa lana oinarri hartuta mamitu du HKEEk.

EUZKO ALDERDI JELTZALEA (EAJ)

1994ko abenduaren 15ean hautes-kontabilitatea honako hau izan da:

			Ptas.
Gutunazal, orri eta postasaria	20.138.658	Dirulaguntzaren aurrerakina	26.836.545
Publizitatea eta propaganda	115.195.156	Alderdiaren ekarpena	12.000.000
Aretoen alokairua	1.984.633		
Langilegoari ordainketak	551.458		
Garraio eta toki aldaketa gastuak	2.663.737		
Finantz-gastuak	0		
Askotako gastuak	1.963.053		
GASTUAK	142.496.695	KOBRAKETAK	38.836.545
Diruzaintza	1.433.133	Hartzekodunak	105.093.283
	143.929.828		143.929.828



Hauteskunde-kontabilitatea aurkezteko data hauteskundeetako banku-kontuan interesen ordainketa baino lehenagokoa denez gero, ez da finantz-sarrera modura erregistraturik inolako kopururik azaltzen.

EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA - EUSKADIKO EZKERRA (PSE-EE)

1994ko abenduaren 26an hautes-kontabilitatea honako hau izan da:

		Pta.	
Gutunazal, orri eta postasariak	16.286.302	Dirulaguntzaren aurrerakina	21.123.120
Publizitatea eta propaganda	91.063.533	Alderdiaren ekarpena	47.000.000
Aretoen alokairua	913.958	Epe motzerako banku-kredituak	54.633.750
Langilegoari ordainketak	0	Finantz-sarrerak: interesak	225.770
Garraio eta toki aldaketa gastuak	7.454.760		
Finantz-gastuak	2.436		
Askotako gastuak	6.127.872		
GASTUAK	121.848.861	KOBRAKETAK	122.982.640
Diruzaintza	1.133.779	Hartzekodunak	0
	122.982.640		122.982.640

Itaundutako kredituak jaso beharreko dirulaguntza aurkezten du berme modura, eta segidako ezaugarriok ditu:

Muga	55.000.000	pezeta
Gauzatutako data	94/10/3	
Mugaegun data	95/10/3	
Erabilitako kopuruen gaineko interesa	%10,5	
Irekiera komisioa	%0,5	

Kreditu hau gauzatzeagatik komisio gastua eta kreditua emateak berekin dituen bestelako gastuak, guztira 366.250 pta.ko zenbatekoan, ez dira hautes-kontabilitatean barne-hartuak ageri, zenbateko garbiarekin kontuataratua baitago.

ELHLren 146.g artikuluan agindutakoaren arabera hautes-izaerakoak diren kredituari ezargarriak zaizkion interes-gastuak ere ez ditu hautes-talde honek erregistratu (HKEEK egindako balioespenak hauteskunde-kontabilitatearen aurkezpen datara arte kontzeptu honegatik sortutako gastuak, gutxigora behera, 1.000.000 pezetakoak izango lirartekeela ondorendu du).

Finantz-sarrerak hauteskundeetako banku-kontuan 1994ko abenduaren 15ean ordaindutako interes garbiei dagozkie.



HERRI BATASUNA (HB)

1994ko abenduaren 14an hautes-kontabilitatea honako hau izan da:

		Pta.	
Gutunazal, orri eta postasariak	3.061.346	Dirulaguntzaren aurrerakina	19.488.450
Publizitatea eta propaganda	60.467.842	Alderdiaren ekarpena	18.000.000
Aretoen alokairua	4.746.651	Epe motzerako banku-kredituak	19.220.018
Langilegoari ordainketak	4.652.214		
Garraio eta toki aldaketa gastuak	2.362.853		
Finantz-gastuak	255.428		
Askotako gastuak	143.075		
GASTUAK	75.689.409	KOBRAKETAK	56.708.468
Diruzaintza	4.836.157	Hartzekodunak	23.817.098
	80.525.566		80.525.566

Itaundutako kredituak jaso beharreko dirulaguntza aurkezten du berme modura, eta segidako ezaugarriok ditu:

Muga	55.000.000 pezeta
Gauzatutako data	94/10/17
Mugaegun data	95/10/17
Erabilitako kopuruen gaineko interesa	%13
Irekiera komisioa	%0,5
Erabilera komisioa	%0,75 erabili gabeko batz besteko saldoaren arabera

«Finantz gastu» modura kontuetaratutako zenbatekoak, oinarri-oinarrian, kreditua gauzatzeari dagozkionak dira.

ELHLren 146.g artikuluan agindutakoaren arabera hautes-izaerakoak diren kredituari ezargarriak zaizkion interes-gastuak ez ditu hautes-talde honek erregistratu (HKEEk egindako balioespenak hauteskunde-kontabilitatearen aurkezpen datara arte kontzeptu honegatik sortutako gastuak, gutxigora behera, 200.000 pezetakoak izango liratekeela ondorendu du).

Hauteskunde-kontabilitatea aurkezteko data hauteskundeetako banku-kontuan interesen ordainketa baino lehenagokoa denez gero, ez da finantz-sarrera modura erregistraturik inolako kopururik azaltzen.



PARTIDU POPULARRA (PP)

1994ko abenduaren 15ean hautes-kontabilitatea honako hau izan da:

		Ptas.	
Gutunazal, orri eta postasariak	26.148.239	Dirulaguntzaren aurrerakina	12.767.355
Publizitatea eta propaganda	90.786.447	Alderdiaren ekarpena	124.560.000
Aretoen alokairua	7.038.143	Finantz-sarrerak: interesak	3.153
Langilegoari ordainketak	750.000		
Garraio eta toki aldaketa gastuak	17.521.828		
Finantz-gastuak	31.041		
Askotako gastuak	8.523.752		
GASTUAK	150.798.752	KOBRAKETAK	137.330.508
Diruzaintza	13.289	Hartzekodunak	13.481.533
	150.812.041		150.812.041

EUSKO ALKARTASUNA (EA)

1994ko abenduaren 3an hautes-kontabilitatea honako hau izan da:

		Ptas.	
Gutunazal, orri eta postasariak	7.409.689	Dirulaguntzaren aurrerakina	15.106.635
Publizitatea eta propaganda	54.165.886	Alderdiaren ekarpena	10.560.000
Aretoen alokairua	3.307.668		
Langilegoari ordainketak	2.752.340		
Garraio eta toki aldaketa gastuak	1.340.385		
Finantz-gastuak	0		
Askotako gastuak	531.818		
GASTUAK	69.507.786	KOBRAKETAK	25.666.635
Diruzaintza	5.543	Hartzekodunak	43.846.694
	69.513.329		69.513.329

Hauteskunde-kontabilitatea aurkezteko data hauteskundeetako banku-kontuan interesen ordainketa baino lehenagokoa denez gero, ez da finantz-sarrera modura erregistraturik inolako kopururik azaltzen.



EZKER BATUA

1994ko abenduaren 22an hautes-kontabilitatea honako hau izan da:

		Ptas.	
Gutunazal, orri eta postasariak	14.050.765	Dirulaguntzaren aurrerakina	0
Publizitatea eta propaganda	28.734.284	Alderdiaren ekarpena	10.950.000
Aretoen alokairua	2.080.984	Epe motzerako banku-kredituak	36.000.000
Langilegoari ordainketak	2.318.765		
Garraio eta toki aldaketa gastuak	6.015.355		
Finantz-gastuak	2.358.444		
Askotako gastuak	2.652.685		
GASTUAK	58.211.282	KOBRAKETAK	46.950.000
Diruzaintza	13.725.994	Hartzekodunak	24.987.276
	71.937.276		71.937.276

Hautes-talde honek ez du dirulaguntzaren kontura aurrerakinik jaso, ez baitzuen 1990eko hauteskundeetan legebiltzar-aulkirik eskuratu.

Itaundutako kredituak jaso beharreko dirulaguntza aurkezten du berme modura, eta segidako ezaugarriok ditu:

Muga	38.000.000	pezeta
Gauzatutako data	94/9/23	
Mugaegun data	95/9/23	
Erabilitako kopuruen gaineko interesa	% 11	
Irekiera komisioa	% 0,5	

«Finantz gastuetan» kreditua gauzatzeak eragindako gastuak eta erabilitako saldoak sortutako interesen eta 1995eko irailaren 23ra arte sortuko direnen balioespena barne-hartu dira (ELHLren 146.g artikulua interes hauek dirulaguntzaren kobraketa-datara arte hautes-gastutzat hartzea baimentzen du).

Hauteskunde-kontabilitatea aurkezteko data hauteskundeetako banku-kontuan interesen ordainketa baino lehenagokoa denez gero, ez da finantz-sarrera modura erregistraturik inolako kopururik azaltzen.



UNIDAD ALAVESA (UA)

1994ko abenduaren 12an hautes-kontabilitatea honako hau izan da:

		Ptas.	
Gutunazal, orri eta postasariak	2.530.002	Dirulaguntzaren aurrerakina	4.706.612
Publizitatea eta propaganda	20.176.046	Alderdiaren ekarpena	3.000.000
Aretoen alokairua	1.027.450	Epe motzerako banku-kredituak	25.000.000
Langilegoari ordainketak	1.494.500		
Garraio eta toki aldaketa gastuak	3.502.487		
Finantz-gastuak	1.248.416		
Askotako gastuak	2.726.905		
GASTUAK	32.705.826	KOBRAKETAK	32.706.612
Diruzaintza	917.452	Hartzekodunak	916.666
	33.623.278		33.623.278

Itaundutako kredituak jaso beharreko dirulaguntza aurkezten du berme modura, eta segidako ezaugarriok ditu:

Muga	25.000.000 pezeta
Gauzatutako data	94/10/6
Mugaegun data	95/09/28
Erabilitako kopuruaren gaineko interesa	% 11
Irekiera komisioa	% 1
Erabilera komisioa	%0,5 erabili gabeko bataz besteko saldoaren arabera

«Finantz gastuetan» kreditua gauzatzeak eragindako gastuak eta erabilitako saldoak sortutako interesen eta 1995eko otsailaren 6ra arte sortuko direnen balioespena barne-hartu dira (ELHLren 146.g artikulua interes hauek dirulaguntzaren kobraketa-datara arte hautes-gastutzat hartzea baimentzen du).

Dirulaguntza gutxigora behera 1995eko apirilaren 6an jasoko dela kontu atereaz, ezargarri diren interes-gastuak 124.945 pezetan mailaz behetik balioztatu dira (60 egun gehiago, kitatzeko dagoen 6.815.156 pezetako kopuruaren gainean); HKEEk zenbateko hau eman beharreko dirulaguntzaren oinarri modura sartzea proposatzen du (hautes-talde honek eskuratutako hauteskunde emaitzen arabera zegokiokkeen dirulaguntza baino gastu txikiagoak aurkeztu ditu, eta honenbestez, gastuen zeinahi igoerak jaso beharreko dirulaguntza kopuru berean areagotzea eragiten du; ikus 2.3 atala).

Hauteskunde-kontabilitatea aurkezteko data hauteskundeetako banku-kontuan interesen ordainketa baino lehenagokoa denez gero, ez da finantz-sarrera modura erregistraturik inolako kopururik azaltzen.

2.3 ZURITUTAKO GASTUAK ETA DIRULAGUNTZEN KALKULUA

Hauteskunde gastuen dirulaguntza Euskal Herriko Autonomi Elkarteak ondoren adierazitako arauen arabera egiten du (ELHLren 151.1 artikulua, Ekonomia eta Ogasun Sailburuaren 1994ko irailaren 5eko Agindu bitartez eguneraturiko zenbatekoekin):

- Eskuratutako legebiltzar-aulki bakoitzeko 1.231.000 pezeta.
- Eskuratutako botu bakoitzeko 185 pezeta, beti ere hautagai-taldeko gutxienik kide batek dagokion hautes-barrutian aulkia eskuratu duela.
- Legebiltzar-aulkia eskuratu duten hautagai-taldee 29.544.0000 pezeta. Hiru lurralde historikoetan aurkeztu ez direnentzat dirulaguntza hau aurkeztu diren lurraldean/-etan dagoen biztanle-kopuruaren arabera izango da.
- Talde politiko bakoitzari emandako dirulaguntza kopuruak ez dezake HKEEK egiazkotzat jotako aitortutako hautes-gastuen kopurua gainditu. (ELHLren 151.3 art.).

Legebiltzar-aulkia izatea lortu edota hauteskundeetan dirulaguntzen aurrerakina eskatu duten hautagai-taldeen egiaztatu dituzten gastuak, eta horiei dagozkien dirulaguntzak honako hauek dira:

Hautagai-taldea (pezetak)	Egiaztatutako gastuak	a) Aulkien arab. dirulaguntza	b) Botuen arab. dirulaguntza	c) Dirulaguntza Orokorra	Dirulaguntza guztira
EAJ-PNV	142.496.695	27.082.000	56.304.010	29.544.000	112.930.010
PSE-EE	121.848.861	14.772.000	32.316.170	29.544.000	76.632.170
HB	75.689.409	13.541.000	30.737.195	29.544.000	73.822.195
PP	150.798.752	13.541.000	27.187.600	29.544.000	70.272.600
EA	69.507.786	9.848.000	19.450.160	29.544.000	58.842.160
IU-EB	58.211.282	7.386.000	17.258.835	29.544.000	54.188.835
UA	32.830.771	6.155.000	4.711.765	29.544.000	32.830.771

Zerrendan jasotako hautagai-talde guztiak hiru lurralde historikoetan aurkeztu dira. Unidad Alavesaren hauteskunde gastuak 32.830.771 pezetakoak izan direla adierazi behar da (32.705.826 pta. aurkeztutako gastuena, gehi 2.2 atalean proposatutako 124.945 pta.ko egokitzapena) eta honenbestez, hauteskunde dirulaguntzak ez diezaioke kopuru honi gaina hartu.



2.4 GOMENDIOAK

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO LEGEAN KONTROL-PROZEDURA

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko 5/1990 Legeak (ELHL) bertako 148tik 150era bitarteko artikuluetan hauteskunde-kontabilitateen kontrolean jarraitu beharreko bidea zehazten duenean, ez du ez HKEEK bete behar duen tokia, ezta honen eta Autonomi Elkarteko Hauteskunde Batzordearen (AEHB) arteko eskumenen banaketa ere behar adina argitzen.

AEHBk behin hautes-kontabilitateak jaso ondoren, «aurkeztutako hauteskunde sarrera eta gastuen egiaztaketari» buruzko txostena mamitzen du. (149.4 art.). Horretarako, ELHLk hautagai-taldeei zeinahi argibide eskatzeko eskumena aitortzen dio, aurkeztutako datuen egiazkotasunari buruzko ikerlanei ekitekoa, erakunde publiko zein pribatuei informazioa eskatzeakoa, e.a. (148. art.).

Baldin eta araugabekeriaren bat azaleratuko balitz, AEHBk txostena zabaldu aurrean hauteskunde taldearen administratzaile orokorrari horren berri eman behar dio, arrazoibideak aurkezteko epea jarriaz. (149.3 art.).

Ondoren, AEHBk bere iharduera guztiaren emaitzak HKEEri iristarazten dizkio.

Gerora, HKEEK «hauteskunde kontabilitateen arauzkotasunari» buruzko txostena lantzen du, edukiz aurrekoari guztiz lotua datorrena. (150.1 art.). Lege berak aurrerago dio eman beharreko dirulaguntzek «ez dezaketela HKEEK egiazkotzat jotako aitortutako hautes-gastuen kopurua gainditu». (151.3 art.).

Aldi honetan HKEEK AEHBk jarraitutako irizpidea ez bezalakoa erabiliko balu eta arrazoibideetarako beste prozesu bati ekingo ez balitz, aldaketen eraginpean leudeken hautagai-taldeen ez lukete euren burua zuzitzeko aukerarik izango.

AEHBk gainera, ez dio HKEEri argibide gehigarria eskatu edota aurkeztutako datuen egiazkotasunari buruzko azterlanik egiteko ahalmena berariaz aitortzen.

Honegatik guztiagatik, HKEEK komenigarria irizten dio ELHLren 148tik 150erako artikulua aldatzeari, ondoko ideia orokorrak bilduaz:

- HKEEren egitekoa aurreratu, AEHBren iritzia harik eta epaitegiak txostena mamitu arte atzeratuaz.
- Lege-testuan HKEEK bere fiskalizatze-lana gauzatzean dituen eskumenak berariaz adierazi: informazio-eskea, ikerketa-lana, e.a.



BESTELAKO GOMENDIOAK

HKEEk uste du hautagai-taldeei hauteskunde gastuak aurkeztean xehekatuak aurkez ditzatela eskatzea komenigarria dela, ELHLren 146. artikuluan adierazitako moduari jarraiki.

Aurrekoaren osagarri gisara, hautagai-taldeei atal bakoitzean barne-har daitezkeen gastuen diskribapen zehatza eskuratu behar litzaieke, ahal den heinean aurkeztutako informazioak bateratasunik ez izateagatik hutsik egon ez dadin.

Kredituen interes-gastuak kalkulua egiteko zailtasuna daukate, ELHLk agintzen baitu hautes-gastutzat dirulaguntza jasotzen den datara arte egotzi ahal izango direla; data hau, ordea, ez da zehazki jakiten kontabilitatea aurkezteko unean. Honenbestez, kontabilitateak aurkeztu aurretik AEHBk hautagai-taldeek jarraitu ahal izango duten irizpide objetiboa finkatzea gomendatzen dugu.

HKEEk, AEHBk egoki iritziz gero, bere laguntza eman dezake aurreko lerroarteetan azaldutako gomendioak gauzatu ahal izateko.



ERASKINA

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI BURUZKO LEGEAN KONTROL-PROZEDURA ALDATZEKO PROPOSAMENA (ELHL)

ELHLn aurrikusitako kontrol-sistema aldatzeari buruzko pentsamolde orokorreari gaina hartuaz -Eraskin hau biltzen duen Txostenean garatu direnak- eta testu zehatz batean bilduta egungo sistema hobetzeko proposamena aurkezteko asmoarekin, eraginpeko diren artikuluek izan lezaketen idazkera berriarekin honako lan-zirriborro hau Autonomi Elkarteko Hauteskunde Batzordearen (AEHB) eta lege-ahalmenaren jabe den aldetik Eusko Legebiltzarraren eskueran euren iritzia emateko jartzen dugu:

• 148. artikulua (erakunde fiskalizatzaileen eskumenak):

«1. AEHBri dagokio hauteskunde-iharduera eta kontabilitatearen gaineko kontrola, HKEEren egiteko fiskalizatzailea kaltetu gabe.

2. AEHBk, hala badagokio HKEEren proposamen bitartez, hauteskundeetan esku hartzen duten hautagai-taldeek jarraitu beharreko kontrol-prozedurak eta agiri bidezko zuribideak agindu, eta Kontularitzazko Plangintza Orokorraren printzipioen baitan ezargarri diren kontularitzazko irizpideak finkatu ahal izango ditu.

AEHBk idatziz irtenbidetu beharko ditu hautagai-taldeetako administratzaile orokorrek egiten dizkieten itaunak.

3. AEHBk eta HKEEK beharrezko irizitako kontularitzazko edota hautes-iharduerari buruzko argibideak eskuratu ahal izango dituzte administratzaile orokorregandik.

4. Erakunde publiko eta pribatuek Hauteskunde Batzordeei eta HKEEri euren egiteko fiskalizatzailea betetzeko eska ditzaketen datuak eskuratu beharko dizkiete.

5. AEHBk eta HKEEK hautagai-taldeetako administratzaile orokorrek aurkeztutako datuen egiazkotasunari dagokionez ikerketak egin ahal izango dituzte.

6. AEHBk hauteskunde-iharduera edota kontabilitateen kontrola egiteko berariazko fiskalizatze-prozedurak ezartzeko eskari egin diezaiokie HKEEri.

7. AEHBk edota HKEEK egindako ikerketa lanetik hauteskunde-delituak osatzen dituzten jokabideen aztarnarik ondorenduko balitz, dagozkion ekintzak bideratzeko Ministeritza Fiskalari jakinaraziko diote.»



• **149. Artikulua:**

«Legebiltzar-aulkirik eskuratu edota hauteskundeetarako dirulaguntzen aurrerakinik eskatu zuten hautagai-taldeen administratzaile orokorrak, hauteskundeak igaro eta hurrengo hirurogei egunetan zehar, kontabilitate xehekatua eta agiriz osatua aurkeztu beharko du AEHBren egoitzan.

AEHBk informazio honen aldakia igorriko dio HKEEri.

2. HKEEK hirurogei eguneko epea izango du aurkeztutako agiri-sorta aztertzeko eta hautagai-taldeetako administratzaile orokorrari, aurkeztutako kontularitzazko agiri edota informazioaren zeinahi atal agiri bitartez zuzitzeko dei egin diezaiokie eta baita Lege honetako 142.3 eta 4 artikuluan erabakitakoa betearazteko ere.

Orobat, HKEEK hautagai-taldeekin lotura ekonomikorik izan duten gainerakoei informazioa egiaztatu edo osatzeko dei egin diezaiieke.

3. Hauteskundeak egin eta ondorengo ehun eta hogeitau egunen barruan, HKEEK hautes-kontabilitatearen eta bertan barne-hartutako sarrera eta gastuen justifikazioari buruzko txostena mamituko du».

• **150. artikulua:**

«1. HKEEK arestian aipatutako txostena AEHBri igorriko dio.

2. Ondoren AEHBk, arrazoituriko irizpen bitartez, hauteskunde-kontuetan sarrera eta gastuen zerrenda justifikatua dagoela azalduko du; zuritu gabeko sarrera-partidak edota murriztutako gastu-partidak daudela agertuko balitz, hauteskunde-arauak urratu direla ebatziko du, idazpuru honetako zazpigarren atalburuan aurrikusitakoaren arabera, dena delako alderdi, federakunde, koalizio edota taldeari hauteskunde-dirulaguntza ez esleitzea edota murriztea proposatu dezakeelarik.

3. AEHBk aurreko idaztiak aipagai duen irizpena hautagai-talde bakoitzaren administratzaile orokorrari jakinaraziko dio, arrazoibideak aurkezteko hamabost eguneko epea emanez.

4. Hauek zuzenbideratu direlarik eta hauteskundeak egin eta hurrengo ehun eta larogei egunak igaro aurretik, AEHBk hurrengo artikuluan aurrikusitakoari jarraiki, legebiltzar-aulkia eskuratu duten hautagai-taldeei dagozkien hautes-dirulaguntzen zenbatekoak zehaztu eta argitara emango ditu.

5. Hauteskunde-dirulaguntzak EHAAan argitara eman ondoren, Eusko Jaurlaritzak arduradun den Ogasun Sailaren bitartez, 80.3, 144.4 eta 153. artikuluetan aurrikusitakoa kaltetu gabe, dirulaguntza horien zenbatekoa jaso behar duten hauteskunde-taldeen administratzaile orokorreari emango die.»

Azkenik, oraingo 150.5 idazpurua kentzea proposatzen da, sistema orokorrarekin batere lotu gabe Lurralde Historikoetako Hauteskunde Batzordeen iharduera fiskalizatzaileak aipatzen dituen, gainerako artikulua guztiek Autonomi Elkartearen Hauteskunde Batzordeari egin baitiote aipamen. Ez da beharrezkoa, Autonomi Elkartearekin euren iharduera lotzea kaltetzen ez delarik, eta nahasketa-bide da.



1. INTRODUCCIÓN

1.1 OBJETIVOS Y ALCANCE DEL TRABAJO

Según lo dispuesto en el artículo 150.1 de la Ley 5/1990 de Elecciones al Parlamento Vasco (LEPV), el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (HKEE/TVCP) ha fiscalizado la contabilidad de las candidaturas que han obtenido escaño en las elecciones del 23 de octubre de 1994, o que solicitaron adelantos de las subvenciones electorales.

La fiscalización ha consistido en verificar el cumplimiento de los siguientes extremos, derivados de la normativa aplicable:

1.-El cumplimiento de las condiciones que establece el artículo 140 de la LEPV sobre cómo presentar la contabilidad detallada de ingresos y gastos electorales.

2.-La contracción de los gastos electorales desde la fecha de convocatoria de elecciones hasta el día de la proclamación de electos, así como la naturaleza de estos gastos y su concordancia con la clasificación que fija el artículo 146 de la LEPV.

3.-La realización de gastos sin superar los límites señalados en el artículo 147 de la LEPV, cuyo importe se fija en 154.603.279 pesetas para las candidaturas que se presenten en el conjunto de las tres circunscripciones electorales de la Comunidad Autónoma Vasca. (Orden de 6 de septiembre de 1994, del Consejero de Interior).

4.-La justificación de los gastos contraídos, mediante documentos que reúnan los requisitos mínimos que fijan los principios y normas contables, mercantiles y fiscales.

5.-La evidencia en las aportaciones de particulares del nombre, domicilio y número del documento nacional de identidad o pasaporte en el acto de la imposición (artículo 143.1 de la LEPV) y el cumplimiento del límite máximo de dichas aportaciones señalado en 1.231.000 pesetas (artículo 145.4 de la LEPV).

6.-La identificación de la cuenta bancaria de origen en los recursos aportados por los partidos para sufragar el proceso electoral (artículo 143.3 de la LEPV).

